EGUNA

Egija.
Euzkadi Abeŕi txikija da, geuria baña.
Eta bere luŕaldiaren neurkin bat eta euzkotar bat diran bitartian iraungo da.

Lgo. urtia | 121'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. orrilla 23'gna. igandea | 15 eunen

EUZKO GUDA-OÑETAN

Gogorki jo eban arerioak Araba'ko guda-oñetan

Egazkiñak tokia gertu ta landu eutsen bere joaldi indartsuetarako. - Artilleri ugariz agertu zan eta iñoizkorik tankerik geien erabilli ebazan.-Gure mutillak, oŕaitio, zindoki kementsu ta indartsu eutsi eutsen, zigoŕik odoltsuena berari ezaŕiaz. - Itxasertzetik Zornotza ingurutaraño bakea ta bare-aldi.

Iñoiz baño gogotsuago lagundu beaŕean gara gure gudariei

BIZKAYA'N

Joaldirik eta bufukarik ez zan egin atzo egun guztian Bizkai'ko guda-oñetan.

Itxasertzetik Zornotza'raño baketsu ta ixil igaro zan eguna, kañoien joaldiak ataraten eben zarata ta otsa izan ezik.

Alderdi bietako kañoiak etengabe ibili ziran egun osuan alkaŕi sua jaurtiten.

Bufukaldi zoliak egin zituezan une batzuetan, baña ondoren barik.

Egazkiñak ostera batzuk egin zituezan eta bonbak jaurtiten be ateginduziran.

Beste eguneko kalterik ez eben egin oŕaitio alde onetako guda-oñetan.

ARABA'KO GUDA-OÑETAN

Goizian golz asi zan arerioa gogorki, zital eta indaŕtsu joten.

Bufukaldirik gogoŕenetan eta gordiñenetan agertzen ditun egazkiñak. artileria eta tankeak ugaritsu atara zituzan atzo, bere joaldiei laguntzeko.

Gure gudariak euren lekuetan tinko eta gertu iraun eben oŕaltio arerioak joaldiak joaldi egiñaŕen.

Oŕela goizean arerioak egin zuzan joaldietan, bere indaŕak makaltu ta ezerestutea besterik ez eban lortu.

Aŕatsaldean baŕiro joten asi zan oŕaitio, goizean artueban zigoŕaz makalduta geratu barik.

Goizekorik jazo ez egioan, goizean baño indaŕtsuago jo eban oraindik aŕatsaldean.

Goizean baño egazkin ugariagok lagundu eutsen, goizean baño artileri geiago erabili eban, goizean baño tanke ugariago agertu zituzen sinistu ezin besteko artilleri ta egazkin laguntasunaz, gure mutilak joten eta zigortuten asi zan. Oneik zorrontsu aldeztuten ziran, abeŕi-miñak jota bakaŕik, abeŕiarentzako aldezten ebezan luŕaldeak euken indaŕa goratuaz.

Arerioak, egiñalak egiñaŕen aureratu ezin ebala oartu ebanean, piñadiei su emon, mendiak gaŕetan laga ta guda-lekuak gori gori ipinten alegindu zan. Oŕelaxe bakaŕik lortu al izan eban gure mutilak toki batzuetatik atzera bialtzea, baña auŕetik toki guztiak bere mutilen odolez buztuta laga ondoren.

Odol ugari ixuri eban atzo arerioak. Gizon asko galdu ebazanik esan beaŕik ez dogu. Gizonak-gizon betiko jausita geratu ziran Dima'ko inguruetan. Eta odoloztuta osategietarako altzau zituezanak aneika dira.

Oŕixe lortu eban atzo arerioak.

Nekez ta loŕez lortu ta auŕeratu al izan eban apuŕa, milaka gizonen odo-

(Azkenengo oŕijan daŕai.)

Euzkadi'ko lendakari aguŕgaŕija, Agiŕe'taŕ Joseba Andoni'k, gure gudarijen adore ta buru-eskeintzak, berak, berenez ausnartu-gura izaten dauz, eta oŕetarako guda-oñetara laŕtzian bein osteratxua egin oi-izaten dau. Ona emen, ostera oŕetaiko baten gure lendakari jauna, gudari artzo, gudalburu batzuk lagun dauzala.

1634'ko oŕilaren 24'gn.

ABERTZALE odola Bizkaya'n

1625'ko batzaŕak ziran.

Bizkai'ko andikiak euzkereari ostikada gogoŕa emon eutsen. Ereño, Barakaldo, Beŕiatua, Berango eta Muxika'ko ordezkariak ez eben batzaŕean jarlekurik aurkitu erderaŕik ez ekielako. "Por no saber leer, escribir ni nablar el romance" diñue ordukoedestiak.

Andiki ta oŕiaren artean asaŕe bizi ta gordiñak ziran. Jaunari azpikeŕirik egiten eutsen arek. Eŕia ordez abertzale zindo ta sutsu agertzen zan.

Asaŕeok laster ikusi daikeguz geroagoko batzaŕetan.

1631'gaŕen urteko urtariaren 19'gaŕenean sindikuak Eŕekimentu nagusiari adierazo eutsena laster zabaldu zan Bizkaya osuan. Orduan Bizkai'ko korregidore zan Lope de Morales'ek IV'gaŕen Pilipa'ren agindu lotsagaŕia artu eban, Bizkaya'n egoan gatz guztia goratu ta beretzakotu egiŕan. Bizkaya'k min artu eban eta bear ziran garbitasunak eta lanak egiten asi, eraŕagi ori ezerestuteko. Min andia zan, Legearen aurkako zirikada astunegia zan, bizkaitaŕak eroapenez eta ixilik artu ta beteteko. Oraindik gogoan eben bizkaitaŕak III'gaŕen Pilipa'k, gizaldi aren asieran, miloetako zerga kobrauteko agertu eban asmo zital eta gurari deungea. Bizkaya'ren jaubetasunari irain andia zan izan be bizkaitaŕ biotza ez mintzeko!

Gatzarekiko asmuak ezerestuteko lanak lau arte iraungo eben. Bizkaitaŕak oŕaitik ezeben aimbesterako gogorik. Andikiak zer erabili eben laster igaŕi eben. Iralaren 23'ean egin zan batzaŕean, kaltza baltzdunik ez dogu batzaŕetan nai, oyu egiten asi ziran. Batzaŕak "men egiten da, baña bete ez", agertu eban eŕegearen gurari ta asmo zitalari buruz. Baña eŕegearen ezespenik etzan eltzen. Ciudad Real'go dukea bialdu zan Bizkai'ra altzaupena baretu ta eŕia ixildutek Pilipa'k euzkotaŕ bat bialtzen jakin eban eŕia atzipetuteko asmotan. Baña eŕiak aginduak eta gizonak barik, asmoak bastartzea nai eban. 1634'ko otsalaren 15'an egin zan batzaŕean eŕiaren egoera ikusi al izan zan. Bi mila gizon, lantzekaz ornidura, Gernika'n agertu ziran andikien aurka. Buruzagi ta gudari zintzo zituen Morga eta Sarabia. Otxoa Axorabide'taŕ Martin, Puente eta Urtusaustegi'taŕ Jon, Armona abadea, Bizkaigana anaiak, Lafabastef eta abaŕ. Aritzaren gibelean josita, dindiliŕka, idazkun zofotzak eta sutsuak agertu ziran: "Bizkaya'n eta Bizkai'tik kanpora eŕegeak gure lagiak gorde begizkuz!" "Ez bedi iñor Madrid'era juan!" "Il bediz etoiak (traidoreak)!"

Dukea eta bere jaŕaitzaleak kanpora kanpora jaurti nai zituezan. Auŕerantzean kapote eta lantzadunak izan eitezala Gobernuko eskatu eben. Batzaŕak ez eban jakin ukatzen.

Baña dukeak zitalki jokatuaz, garai egokirarte itxaroten jakin eban. Ile bi geroago, eriŕañak eta bere jaŕaitzale batzuk lagunduta Bilbao'ko atiekaz jaubetu ta saferak itxi zituzan. Goizeko laurak ziran. Abertzale, gudari ta buruzagiak euren etxietan atrapau ebezan ta kartzelara eruan. Batzuk iges egin al izan eben. Morga, Axorabide eta Puente'k gaŕotean bilatu eben eriotzea kartzelako iluntasunean. Eriotzea ikusi al izateko dukearen otseñak eŕetxiñak bztu zituezan. Eguna argitu orduko, goizeko saspiretan, eŕiko plazan iausi ziran Bizkaigana anaiak eta Lafabastef, abeŕi miñez irakiten. Armona bagilaren 25'an il zan espetxean.

Eŕiak, buruzagi barik, ez eban adorerik izan altzauteko. Baseŕitaŕak burua makurtu eben eta Bermeo ta itxas-ertzeko aŕantzaleak Donibane Loitzun'era igesi juan ziaŕn.

Ildakoen odola oraindik bero egoala, eŕegearen agindua eldu zan, bere asmoak bastartzen.

Oŕelaxe jausi ziran Bilbao'n Bizkaya'ren abertzaletasun berogaŕi ta aupalari izan ziran abertzale ereduak.

Txapelak kenduta, gizonki begiratu dagioegun.

Orduko miñak dira gaur Bizkaya'n. eta orduko gurari ta asmo zitalak aŕoten artetik.

Baña orduan lez, etoiak, saltzaleak. azpijantzaleak, Bilbao'ren aterik ez dabe baŕutik saŕatuko. Euzkadi'ren gizonak atxilotu ta bertan ilteko.

Bizkaya'k, Bilbao'k, bere burua zindoki zaintzen eta aldeztuten jakingo dabe, arerioaren gurariak sustraitik ebagi ta Euzkadi'ren kolkotik arerioa jaurtiaz.

Orduan lez, gaur be idazkun bat, diŕaŕ bat agertu beaŕ da guztion auŕez auŕe: Il bediz etoiak (traidoreak)!

EUZKADI'KO GUDA-ZAINGOAK ATZO GABEKO AMAŔETAN EMANDAKO AGIRIA:

Ipaŕalde gudoñak (Bizkaya)

Guretaŕai ezeŕen kalterik leporatu ez dien artileri-jote apuŕa beste aipagaŕirik ez da izan guda-oin ontan.

Erdiko gudoñetan (Araba)

Goizeko lenen-orduetan guda-tramankuluz ondo ornituta eraso zuan arerioak, egazkin, artileri ta tankeak etengabean jardunaz; baiña, ala ta guztiz, gure gudariak egoki eutsi diote ainbat beeratze egiñaz.

Aŕatsaldean ere erasoari eman zion beŕiro, zitalago gaiñera, guretaŕak kementsuenik-kementsuen eutsiaz eta astiñaldi ta kalte gordiñik egiñaz.

Durango inguruan "falange"tar bat igaro da gure artera.

Egoaldeko gudoñetan (Burgos)

Ezer ez.

Paxisten amuŕua Madrid uria suagatzen

Madrid.—Goizean goiz asi ziran erasoka paxisten kañoiak uri baŕura suagak jaurtiaz. Eŕizalionak bereialoan asi ziran erantzuten, eta artileri biak egundoko buŕukaldia izan eben sei ordu inguruan.

Eŕizalien kañoiak bizi bizi asi ziran eta une baten sua ta abaŕotsa besterik ez zan sumatzen, izkilazkar sendoak bai'liran.

Ipaŕalde baŕutiko kañoiak izan ziran eŕizalienak geien jardun ebenak, eta erkaldaŕen suagak paxisten guda esietara jausten ziran bitartean, onenak uri baŕuan erortzen izan dira, kalteak eta eriotzak egiñaz.

Uriak artu izan dauan suagakotarik gogoŕena izan dogu nonbait, gaurkoa. Madrid'eko uri su-itzaltzaleak berebizian etengabe jardun dabe ara eta ona. euren beaŕa dan leku guztietara azkar elduaz.

Eŕizalien artileriak Ciudad Universitaria gain jaurtitzen ekin dautsa geienbat; Manzanares inguruetan eundak bonba ta obus jausi izan dira. Garabitas eta Cerro del Aguila'ko paxisten suagakariei ere gogor eraso dautse eŕizalien kañoiak.

Toledo inguruetan eŕizalien erasoai makal erantzun eutsen arerioak. Erkaldaŕak, kañoiez, jo ta su ekin eutsen Toledo'ko ta inguruetako paxisten guda lekuak.

Egazkiñak Erdiko gudoñetan ikusketetan ekin eutsen, eta Tajo egoaldean bonba urtika jardun eutsen eŕizalien egazkiñak.

Egun neketsuetan

Eriotzea eredu

Bare aldia da.
Buŕukearen indaŕak, lef egin dabe.
Alde batetik eta bestetik, pusilak tiro banakak baño ez ditue jaurtiten.
Kañoiak ixildu dira.
Mendietako ixiltasuna ta bakartadea buŕukaldi gordin eta odoltsuen ondoren!
Odola gori dago oraindik eta eguzkiaren argitara diadiz dagi, auts artean.

Basoan, nok jaso ez da, luŕa emongo dautsen esku adizkide edo biotz zabalik bilatu ez dabelako, udabaŕiaren lore izan ziran gazte alai ta adoretsuen gorpuak ikus bat. Zatituta, suzituta, osotasun barik. Burua gora-begira, eriotzeak eroan dautsan izerditan oraindik. Zudufetatik eta espanetatik odol baltza, okozperaño. Bere espanetan eta bere anpegian miña irakuŕi lei oraindik. Berunak biotzean jotean, nai barik beaŕ ba'da atara dautsan asperen ituna edo deadaŕ laŕi ta urduŕi bat egingo eban. Nok daki maitasunaren gibeletik urteneko itz ori, aspaldidik buruan erabilan adizkide kutunarentzat izan ete dan, edo odola ixuri daben abeŕiari azken oparia, edo sinismenen maitaliei eskintza eroapentsua izan ete dan?

Abeŕiaren alde jausi ziranon gorpu ilotzak oldozkun latz eta itunik guregatzen dauskue. Urietan eta guda-atzean gudean oldoztu ta pentsau barik bizi nai dabenak eriotzok ikusten mendiratu beaŕ litzakez, eriotzearen miñak jota abeŕiari begira ta azkatasunaren alde, ildakoen oroiz, jokatzen eta gudatuten jakin dagien. Eriotzea irakaspide ugarin itufi dogu gudan.

Eriotz aintzagaŕi ta maitagaŕirik ikusten dira mendietan. Pusila eskuetan dabela, gora begira, azkatasunari diŕaŕez. Euzkadi'ri maitasunka ilten diran gudariak, abertzale guztien eskeŕ ona ta betiko gogorapen zindua merezi dabez.

Abeŕiarekin ilten jakin daben gudari gazte ta zindoen eriotzak, abeŕiaren aldez bixiten eta abeŕiaren aldez ekiten irakatsi ta agindu beaŕ dauskue. Abeŕi bizitza latza ta neketsua danik ezin ukatu, baña latzago ta neketsuago da bizitza jopua, menpetasunezko bizitza nafaza, ostikopetutako bizitza baldaŕa. Euzkotaŕok bein da betiko egi ori ikasi beaŕean gara. Oraindik aztia d gu oŕetarako. Mendian zindoki ta gizonki ilten jakin ebenak, menperatuta biziteŕik nai izan ez ebelako ta bizitza ori euzkotaŕentzako ikusi nai ez ebalako, gure irakasle ta eredu izan begia.

Abeŕiaren une latzetan, abeŕiaren bizitza edo eriotz egun oneitan, gure iztea, gure bizitza tartean dabilanik ez dagigun aztu.

Koldaŕak giñatekez, etoiak giñatekez, une batzuetako neke ta zoritxaŕak ez jazateaŕen, egun batzuetako laztasunak ez eruateaŕen, magikeri ta alpeŕkeriz, gure eriotza egingo ba'geunke, gure eriotza ori gertuko ba'geunke. Mendian il diran gudari eŕimientzako iraŕik andiena litzake ori. Abeŕiaren alde jausi ziran gaztien odolarentzat ezespenik andiena.

Eta olakorik ezin daikegu, kistaŕ lez eta euzkotaŕ lez.

Mendian il diran gudarien aintzaa ori euren irakaspide ta indaŕaz, Euzkadi'k zutik iraungo dau, bere semiak zindoki ta sutsu aldeztuten jakingo dabelako.

TONTOŔEKO

Atzoko eguna euzko zaingoetan

Ardau gozoa, jaboia ta margarina banaketea, aste ontan, eta afikatza.-Gaur ogirik ez. - Euzkotar geiago efikatu. - Bost milla ume Ipafamerika'ra. - Sendagilliei agindduak. - Emokunak eta deiak.

GUDA-ZAINGUA

EREZOLA JAUNARENEAN

Atzo eguerdiz Erezola jaun idazkari nagusiarekin lotu giñan izparkariok Guda-Zaingoan.

Guk galderarik egin gabe ere izpar jakingafien befi emateko beti gertu dagon jaun onek auxe jaulki zigun.

—Gaur goizeko zaspiretan, Dima-inguruan eraso gogofari ekin dio arerioak. Kemen'k-kemenen eutsi diote gure gudari efimeak eraso oferi eta kaltea ugari leporatu eraso asi duanari, ainbat ildako ta zauritu egiñaz.

Anfez etengabean artileriak jo ta su jardun ondoren asi du arerioak eraso ori, eta egazkiñez eta tankez lagundutu; baiña oraindaiñokoan ez du lortu ufatz bat ere aufera ematerik. Guretafak ausarditsuenik-ausarditsuen eutsi diote.

Gure gudariak—esan zigun azkenez Erezola jaunak—sendokiro ta ziur jokatu dute.

SALEROSKETA TA ORNIKETA

BELTRAN JAUNARENEAN

Beltran jaunarean zerbait jardun asi izan gendun atzokoan ere.

Lenen-lenengo izpafa, gaur ogirik izango ez genduna esan zigun.

Emakuntza batzuen befi eman zigun ondoren eta ostontzeko iritzi-jardun gero.

LASA JAUNARENEAN

Edari ta Erosketetako zuzendari nagusi Lasa jaunarekin ere lotu gintzaion izparkariok befi-eske.

Atzo, efazio-banaketari buruz idatzi genduncan, orioa ere banatuko zutela esan gendun, baiña akatza idatzi gendula esan zigun Lasa jaunak.

—Datofen astez banatuko diran gaiak, gaiñeratu zigun, onexek dira: moskatel, bestetan beste jaboi eta margarina, koipearen antzekoa, 150 gramo buruko.

IKATZ-BANAKETA

Datofen astez urian ikatza-banatzeko alegiñak-alegin diardute lanean.

Saldu bear duten ikatzkiñai astelenetik asita emango zail ikatza eta, ziur-asko, astean bertan izango da salgai.

OSASUN ZAINGUA

ESPINOSA JAUNARENEAN

Osasun Zaingoan Espinosa burukide jauna agurtu genduncan, Frantze'ratu diran itxasontzietan joan diran osalari-taldeen befi eman zigun. "Cabo Corona" itxasontzian amasei gaixozaineme ta bi osalari joan dira; amaf gaixozaineme eta osalari bat "Galea"n eta amaf gaixozaineme eta osalari bat "Zufiola"n. Biderako dira gaixozaineme ta osalariok, bafukoen artean beafik balitz ere.

Lendakaritza

IZPARIK EZ

Lendakaritza Zaingoan ez gendun atzokoan izpafik jaso.

Idazkari berezi Basaldua'taf Kepa jaunak esan zigunez, berandu Zaingoratu zan lendakari jauna. Gero, bere lan-gelan, Zuzentza ta Gogo-lantze Zaingoko burukide Leizaola'taf Josu Mirena jaunarekin jardun-aldi izan zuan.

fi-zaintza

"ZUFIOLA", "GALEA" TA "CABO CORONA" KANPORUNTZ

Atzo Zaingoratu giñanean, Luisa jauna, Zaingoko idazkari berezia, gau osoa jende-ontziratzea ikustera joanda eman zuala esan ziguten.

"Zufiola", "Galea" ta "Cabo Corona" dira kanporakoa artu duten itxas-ontziok. Iru mila efikatutako edo efefujiatu eraman dituzte frantzetaf kaia batera.

Jende-ontziratzea egoki burutu zuten ertzaiñak eta ez zan ezefen okefik izan.

Lateñi-uretaraiño Euzkadi'ko Gobernuaren "bou" batek eta "Jose Luis Diez" destroyefak lagundu zieten.

Lateñi-uretatik-at ingalandaf gudontziak egin zieten babes.

Gizarte-Laguntza

NEW YORK EUZKOTAR UMEAK JASOTZEKO GERTU

Bustos Zaingoko idazkari nagusiak Erkal Gobernuko Zuzentza Zaingoko ministru Iruxo jaunaren ufutidatzi baten befi eman zigun.

Ona emen zer dion ufutidatzi ofek:

"Ortik bialtzen diranetako bost mila ume jasotzeko gertu dagola jakin erazoko dute New York'etik".

Bereala—gaiñeratu zigun Bustos jaunak—Iruxo jaunarekin artu-eman izango dut, euzkotaf ume utsak ala bestela zenbat euzkotaf ume jasoko dituzten jakitzeko.

BILBAO'KO izpafingiak

"Euzkadi"

Bakotxa bakotxari yaokan tokijan tinko egotia, gud-ildijan gurenda-aldez egin al-leiken danik aldintsubena egitia dala diño.

Bilduf gustijetatik azkatu ta arerijuaren aufera aurkeztutja, adorerik-doriena agirijan erakustja dala, argi ikusten el-da. Adore-era ori, oraingo gudaufka onetan be, agirijan ikusi ei-la.

Neufitik kanporako adore-era ori, baña, gixaki gustijai ezin eskatu e-ei-kijue, gixaki gustijetan aurkitzen ez dan gotjko eskaf berezija dala ori-ta.

Bakotxari yaokan jekuba zaindu dagijala eskatutja, baña, bidezkotzat etsiten dau, bakotxak bakotxari yaokan jekuba zaintzeko iñok ez jako adore-biafik ez dauak-ta.

Eretxi onei indara emoteko, Europa'ko guda nagosijan kapitan bateri jazo yakan jazokuna edestuten dau.

Francetaf kenerala, guda-oñik guda-rin guda-esijak afakatuten ei-ebilan, eta ibili ta ibili, kapitan bat aurkitzen zan guda-esira eldu ei-zan.

Ikusi ebaneko igafi ei-eutsan kapitanari ikaratuta aurkitzen zala. Eta bere aufe tinko jarijaz itaunau zuzendu e-utsan:

—¡E! ¿Zer dok ori? ¿Bilduf-ikaraz?

—Bai, bilduf-ikaraz. Baña neure lekuban, buruzagi jauna.

Keneral arek, bilduf-ikaraz idoro ixan eban kapitanari, ez ei-eutsan geyago ezer esan, ikara ta gusti be, arek, bere jekuba ondo zaintzen ebala ta. Guk be, guda onetan, beste ofen beste egin biaf ei-dogu: bakotzak bere jekuba zaindu.

Eta ori egiten ba-dogu, gudea be, irabazi-egingo ei-dogu, bakotxak beria zaintzen jakin-ezkero, gustijuona dan gurendea zaintzen be jakingo dogu-la.

"Lan-Deya"

Europa'k bafe dagijala diño. Zuzutsaren argi-izpi txikijaren argija ikusten asi garala esaten dau. Euzkadi bere lafi-aldirik aundijenian aurkitzen danian agertu e-ta argi-izpi ori. Arerijua Bilbao'ra bidian aufera egiten ikusten ei-da, ba, bere gofoto gustijen indaraz, Bilbao-ingurubetan iminten yakan gixonezko esija apuftuta Bilbaora saftzeko jefenak egiten.

Paxiotafak gurendari urtengo ba-lira, euren gofoto gustija gure genera jausiko e-tzake, euren pofot-egitiaren efu gustijak guri ezafiko leuskiguezala-ta. Ori dala-ta, Europa ziaf ikusten dan itxaropen-arg-izpijaz bakafik, ez garala poztu biaf diño, gu aldeztuko gafuzana geure sendotasuna, geure izkiubak ixan biaf dirala-ca. Geu, geure indafez aldeztuten ez b-gara, Europa'k ez ei-gafuz aldeztuko.

Edozetara be, baña, arerijuari eusten aste batzuk bakafik irauten ba-doguz, itxaropenez sendotuta jafi gelkezala diño.

Oraiñ eraldutako faurlaritza bafija, paxiotafen aufka dagozan argiririk argijenak ota elejz-gixonen ziñaltzarik egizkuenak be, Lateñi-batzako gixonak egingo daben batzafian gure alde agertuko ei-dira.

Batzaf ofetan erabagi senduak a;tuko ej-dira. ¿Mairu, doistaf, italiaf eta enparauko gudarijak euren erijotara bidaldutia, birba? ¿Doistafen guda-izkilubak paxiotafaj leondutia? ¿Efi-aldezlei guda-zkilubak erosteko eskubidia emotia? Ori gustijori, batzafaren ostian jakingo ei-dogu.

Bitaftian, bafiz, paxiotafen gofotuak azpaijan aftutia gura ez po-logu, geure adore gustijaz geure erija aldeztu egin biaf ej-dogu. Euzkadi'ren ixatia geure eskubetan ei-dago, ba.

"Tierra Vasca"

Mauritaf Adiran'ena da lenengo idazlana.

Gixonak alkaftuteko-ta aldi au baño obarik ezin ixan leikiala, esaten dau. Afiskuban aurkitzen dan zeozer aldeztu biaf danian afiskuban aurkitzen danaren osasuna gofotu gura daben gustijak alkartuten dirala diño, gustijen laguntza-bidez il-zorijan aurkitzen dan gexua osasun-oldaratuteko.

Hitler eta Mussolini'ren gudarijak aurka dauzala, afiskurik-aufi-skubenian gauf aurkitzen dan erija, Euzkadi ei-da. Eta atzefitfen bide bako erasote ofi eustek, asmo bixiz Euzkadi'n alkaftu diran indafak, ifioz ezagutu ixan ez diralakuak dirala autortzen dau.

Euzkotafak euren aberija al daben bestian aldeztuten deragoyoen artian, an Ginebra'n, Lateñi-batzako ordezkarijak batzafturko ei-dira, guda au buruz softu dan zapafadeari apuf bat arjnduteko bidia idoroteko.

Batzafolk bide, baj-ejeteke Euzkadirentzat argi apufen bat egitia: guda-zkilluz-eta ornidutelko arerijuak dauken beste eskubido emotia.

Eta bifartian, France'n be. Erkal-aldeko zabalgundia aufera eruango ei-dabe. Euzkadi'k auzoko laguntzea jaditxi al ixateko aldirik onena, oraingo au dala bayeztuten dau azkenian.

"El Liberal"

Mussolini'tzaz idazten dau. Malmuzkerija baño besterik ez darabilan gixon oni, ezer ezin zinistu begilkijola diño. Ginebra'n Lateñjen batzafa ixango dala esaten dau, ta batzaf aretan Mussolini'k entzun gurko ez dauzan egi asko agertuko dira'a.

Lateñjei, euren batza ori indafgetu-terik ez ei-yake egoki. Mussolini'k be bai ei-daki ori. Eta berenaz urten ezin danetan-eta, Lateñ batza bertan-bera laga ta urtengo daneko zemaya emoten ei-dau.

Oraingo batzafian be, ofelangoren bat egingo ete dabenekua agertuten dau. Edo, bestela, batzafkidien asafia baretu dedintzat, España'n daukazan gurazko gudarijak Italia'ra eruango dauzala esango dauala, batzafetik urten eta beriala lengo malmuzkerijai jafatuteko.

Mussolini'k zuzenian ez ei-dau ezer egiten. Egiten dauan gustija, atzipetik egiten ei-dau. Lagunak be alantxe irakatsita ei-daukaz. Kontuz eta arduraz begiratu biaf yakan gixong ei-la Mussolini.

"Euzkadi Roja"

Lenengo ingoskija, guda-iragarki aundijakaz betetan dau izpafingi onek. Bilbao'ri bufukarako gertau dedila esaten dautso, arerijua betuteko aufetik oldaftu biaf yakela-ta.

Atzo baxen afisku aundija daukagula diño gauf be. Eta afisku ofetatik aldeztuteko, lagizko gudarozte aundi bat biaf dogula. Guda-oñak safi bafiztuko diran eran gudaroztiak eraldu biaf ei-dira, batzuk gudaduten diran aftian, bestatzuk atsedenduten egoteko.

Bilbao'ko gintza gustijak be, gudarako eskatzen dauz. Guda-atzetiko salatarijen boskafen lefua, bafiz, deuseztuta ikusi gura dau. Onek ganza gustijok loftu ezkero, gurendea be loftuta daguala uste dau.

Gurendara eruango gauzala uste dauan euzkotaen Lendakarija goraldu-egiten dau, gurenda-giltza eskuban daukana bera dala-ta.

"Euzko-Langile"

Asteroko abefizale onek gudeatzaz ingoskijak-ingoski idazten dauz. Argazki politak be argitaltzen dauz, mafazki bafagafijak baxen irakatsi aundiknak agertu be bai.

"Ko'ki"k aguf-idazki txikitxu bat idazten dausku. Bilbao'ri aguf dagitso. Gixon batzuben gofotuak jopututa jafi gura dauala diñotso Bilbao'ri. eta eurak, aneika ume, paxiotafen neufi bako gofoto ofek atzefira juaten biaftu dauzala.

Male dan efi baretik urten biaf ixatia, mingafi-mingafija dala diño.

Atzefijan be eurak, gurekin bixiko ei-dira. Eta gudea irabazten be, andixik atzefitik lagunduko ei-dauskube. Abefija egingo ei-dabe. Eta egin be, begijak guda-aufetijan jafita. Eta gurenda-egunian, Abefija goratuten guganduko ei-dira. Oraiñ, baña, euzko-lufari, aguf egiten dautsoe.

¡Gaxuak! Begijan negafa dabela duaz atzefirantz!

"Generalísimo Franco„'k dei egiten digu

Aspaldijtxoan asalda adaf otsak, ibilera bizkof ugari erazotzen dizkigu. Txori bilduñafiak, Franco'ren egazkiñak, safi asko ditugu Bilbao inguruan. Gu zulorjk-zulo gorde naian; nolako "kariziak" dituzten ikusi bai degu.

Egun gutxitan izan ditugu emen egazkiñok. Gai-añe-ik oraingo ontan eta... ingi batzuk, "generalisimo Franco„k izenpetutako ofi batzuk bota zituzten.

Aizeak aruntz-onuntz zabaldu zituan ofi olek ele edo izkuntza era askotan idatzlak dira diotenez. Nik erderazkoa, ta... euzkerazkoa!, obeto "vascuence" 'koa, irakufi ditut.

Ene! Ez al da afigafi "fascistak" euzkera debekatu ta zigoftu euron lur aldietan eta guri euzkeraz itz egiñaz zuzenizea? ¿Zerbait berezi ta gafan tzitsu esan nai ote digube?

Benetako kistafoi, egizko uskurtzalioi, kistaf-ikasbidia baño beste biderik ez yagoku, ba. Kistaf-ixena eruatekotan, bafiz, benetako kistafen ixena ezegaz orbandu barik erabiltia yaoku. Gure arerijuak gura dabena esango dabe, gura dabena zinistu be. Aren esanak eta zinistuten dabenak be, gure ixatia benetako kistafen ixatia ba-da, ixate ori gugandik atzinduterik ez dabe lortuko. Guk geuriari eutsi biaf dautsagu, Euzkadi gurendaz burestunduko dauana, euzkotafan zintzotasuna ixango da-ta.

Aretaz irakufi ditugu, baña... nazka tu egin gera. Euzkeraz idazten asi, ta "vascuence" erabili! Gezufik asko, ta itza ugari, ezkintza leunak. Guk ezin ilintxi baña; astuna bai dago "vascuence" morokil ori.

Ikusi dezagun zerbait; zatitu dezagun ofitxoa. Konturatu gaitezen "generalisimo Franco"k izenpetuta datofena ofitxoa, ta... aufera.

"Guda galdu duzute"; ofela, digu, aufengo, "generalisimo„'ak. E? Etziok gaizki, alajaña; ikustekoak ikusteko gatxiok oraiñlik eta... azken pafe egiten dauanak ballo dik.

Geroz beriketaldi bat lez jardun ondoren, zerbait ezkiñi beaf zerbaiten truke. Guda galduta degula baña" armak utzi zazute" esanaz "ematen diguzu Jaungoikoak agintzen dun pakea odiyo ta gaiztakerik gabe, pake katolikoa".

Ezta gaizki esana; ez, noski. Baña... menpeko duten euzko erietara begiratuaz, ez degu pake ori ikusten eta guretzat" pake katoliko" ori izango ez etedan... uum...! "Jaungoikoak agintzen dun pakea", itz edefak; "odiyo ta gaiztakerik "gabe", itz dontsuak; Baña... Jaungoikoaren izenean "apaiz-jauna riak erail, eta erbestetu; euzkera galerazo, euzkotafa zigoftu, "odio ta gaiztakerik" gabe egitea ez da. Orelakoa ez da "pake katolikoa"; gutxiago "mairuak" azke, lotsagafduak lez, emakume efugabeen bildufgari, azke erabiltzea. "Pake katolikoa" ori ba' da..!

Baña goazen oraindik. "Bertatik dis frutatuko duzute zuen erijaren legezafa eta privilegiyoak erezpetatuaz, eta justizi soziala egiñaz". Ba'da emen ere "vascuence„'ko itza ugari; ez al da ala? Itzak betetzeko dira, euzkoen artean, baña ikusi degun paxiotafen betetzea. "Fueroak" eman—"legezafa eta pprivilegiyoak" dira "fuercak"— eta euzkera oinperatu, euzkotasuna gorotatu ta... efdel zalekeria zabaldu; ottura ederi, euzko-oiturak kendu, ta "espafiolismoa" saftu. Ori alda "efespetatzea"?

Eta "justizi soziala"? Langilea oinperatuaz, gose egafi baten eukiaz, zuen sakelak bete dituzute. Jauntxokeriarekin, baseriak, euzko-aberaztasunik ederenak, ito ta mofoitu dituzute beti. Au ez da, "justizi soziala", aundi nai zalekeria; norberekoi afokeria baño.

Onek onela, ez degu "papel" zati ori gejago bagiratzeko gogorik, eta zuk irakufle, ulertu "generalisimo„'aren itz ojen ondoren zer ekafi nai digun: "Espafiol aundi bat".

Guk euzkoak, etxe jabe naj; noski. Eta... eutsi.

IXAKA.

"Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Jaungoikua'rentzat" ixil du bage esan ol-eban Arana-Goiri gure irakasliak.

Esaera au ahuan, goguan eta bijotzian euki biaf dogu, beti ta beti.

JANARI BANAKETA

GAIAK

Patatak, gozakia, gatza, afoza ta mermeladea

DATOFEN ASTELENEAN

BAKOTXARENTZAT

PATATAK	500	gramo
GOZAKIA	250	"
AFOZA	500	"
GATZA	500	"
MERMELADEA (lagun bi'rentzat)	125	"
(irutifk laurafio)	250	"
(bostetik aufera)	500	"

SANEUFIAK

PATATAK	0'75	kiloko.
GOZAKIA	1'80	"
AFOZA	0'90	"
GATZA	0'20	"
MERMELADEA (125 gramoko potua)	0'65	
(250 gramoduna)	1'25	
(500 gramoduna)	2'00	

Txartelaren zenbakia: 35.

NASKALDIJA

Bakotxa nor dan ezagututeko, bakotxaren egintzari begiratutia lakorik ez dago. Egintzetan zuzen dabilana, ixakeraz be zuzena ixango da. Okef dabilana, baña, ixakeraz be okefa ixango dala esan leike.

Gixabidiaren eta azkera-gayetan irakasle diranak, gudaldi onetan be irakatsi edefik asko emon ixan dauskubez. Asalda-turutak mendi-zuluetara ta gorde-lekutzat ixentauta dagozan etxe senduen berengo txakijetara elduten diran notiñak zelan egon biaf diran eta abaf, idazkun edefik asko idatzi ixan dabez.

Idazkunotan ¿zer irakatsi ixan dauskube? Gordelekubetan bakotxak dauka zan egin biafak; ixilik egon biaf dala; alpefiko alkaf-izketan ez iñarduteko; kafaxirik-eta ez egifeko; ijiji ta ajajarik bez, ez da arira ez datozan gazbakokerijak esan be. Arerijuen egazkiñak ganian eta geure anayak mendijan arerijuen eraso gogafai eutsi-eziñik jefenak egiten daukaguzan bitaftian, gu, gordelekubetan gordeta garala, antzokijan ba-gegozan zorakerijetan iñardutia, gixabidiaren eta azikera onaren irakasle diranak gaiztesten dabezan egiñen ezañak egiten iñardutia da.

Oraingo esturaldi oneik, bafe egifeko baño negaf egifeko egokijaguak dira ixan be. Guri, beintzat, Euzkadi'reu zoritxafa ikusita, bafe-guria baño negaf-guria safijago etoften yaku. Mendijan Euzkadi aldezten diñarduben euzko-gudarijen egoera oldoztutiaz bakafik softuten yaku, guri, benetako negaf-guria. Ikusten diranak ikusita, euzkotafa ta jeltzalia danari beintzat, aberijaren zoritxafak ez leikijo bafe-gurarik emon, aldi estu onetan zoro-bafiak egifia, geure zoritxafari ifi egifia litzake-ta.

Guk, euzkotafok, negaf egin biaf danian, negaf egifen jakin ixan dogu beti. Bafe egin biaf danian, ostera, bafe egifen. Aldi au negaf egifeko aldija da. Baña ez kikilduta geldi egoteko aldija, begijetan negaf malkuak bero-bero dirala, Euzkadi aldeztuten bakotxak al dauanaz iñardutekua baño. Gixabidiaren eta azikera onaren irakasle agertzen diranak irakasten dauskubena, ori da, beñepein. Ikasle zintzuak ixaten alegindu gadixan, ba.

Euzkadi'k aldi lafijak ugari jasan ixan dauz. Oraingo au, baña, orain-arteko gustijak baño lafijagua dala esan geike.

Arerijua gogofa da. Arerijorik gogofena. baña, euren guda-izkilubak eta guda-egazkiñak dira.

Gaizkiñak nok lagundu asko ixaten dau ixan be. Gudaldi onetan be, laguntza-era gustijak, aberi-ondatzale ofein aldetik ikusten dira. Efi-aldezlien aldetik, ostera, izebez.

Datofen astelenian, ila onen 24'gafenan, Lateñi-Batza'ko ordezkarifen batzafa ixango da Ginebra'n. Guda ezeskafi onetzaz iñarduko dira. Bakotxak bere eretxija agertuko dau. Eta bataren eta bestiaren eretxi-meretxijak entzun ondoren, batzafa amafutzat emongo da, batzafkide bakotxa batzaf-lokafijetatik azke geratuteko.

Batzafa amafuko da. Gudea be bai. Baña ez batzafa amafuko dan baxen efez. Batzafaren ondorenak, ¿onik ekafiko ete-dausku, ekafi? ¿Zuzutsa egingo ete-dabe? Jakin ez, ba. ezertxu be jakin ez, guk. Iñok egifekuaren begira daguana, ondo ez da bixi. ¡Zuzutsa dan edefa!... Edefa bai, baña gitxitan ikusten dana.

Gixonak, zuzutsari, yaokan lotsea ixaten jakin ixan ba-lebe, ixan, zoritxaf onek ez eban gixaftian tokirik ixango. Gixonak, baña, zuzutsari lotsarik ixaten ez dabe jakin. Eta zuzutsik, justizijarik, ez dauan tokijan zorijonik beezin ixan. Zuzutsa ta zorijona, anayak dira, ba, banan-duta bixifeko gauza ez diranak.

Zuzuts-lagirik onena kistaf-ikasbidian ikasi doguna da. Goiko Jauna gauza gustien gofik, eta geidia norberen buruba lez mafe ixatian dago zuzutsaren oñafija.

Agindu ori ondo betatuko be-geuke, beste zorijonik ixango geuke. ¡Bai bein!

Benetako kistafoi, egizko uskurtzalioi, kistaf-ikasbidia baño beste biderik ez yagoku, ba. Kistaf-ixena eruatekotan, bafiz, benetako kistafen ixena ezegaz orbandu barik erabiltia yaoku. Gure arerijuak gura dabena esango dabe, gura dabena zinistu be. Aren esanak eta zinistuten dabenak be, gure ixatia benetako kistafen ixatia ba-da, ixate ori gugandik atzinduterik ez dabe lortuko. Guk geuriari eutsi biaf dautsagu, Euzkadi gurendaz burestunduko dauana, euzkotafan zintzotasuna ixango da-ta.

PAXISTEN IZPARRINGIAK IRAKURTEN

Befiz'ko gaisotegian txarto dagola, diño "Diario Vasco" Donostia'kuak, Parma'ko kayetan printzipea, Zita efegiña izan zanaren nebia.

"La Hoja Oficial"en irakufi dogunez, Alvarez Valdes generala Donostia'n izan da.

Institutuan egiten diran italerako ikasketak agertzen ditu.

Aldakoenean "generalisimo Franco" deritxon osategia zabaldu dala adierazoten dau.

Amatasun-etxea izan zan tokian be odol-osategi bat zabaldu dala, diño.

"Heraldo de Aragon"en irakufi dogunez, Franco'k agindu bat emon dau paxisten artean ordua auferatzen.

"Diario de Burgos"ek Franco'ren agindu bat agertzen dau, uea daben guztiak il onen 24 aufetik bankuetan gorde dagien, efurik egin nai ez ba'dabe.

Alemania'ko eritxia

Berlin.—Gaur gabaz etengabeko zufi-mufuak izan dira, ingalandaf ordezkari sir Neville Henderson'ek Atzefi-Arazoetako alemaniaf ministroari iker-aldi edo egin ote dion, espaniaf gudaketan diarduten atzefitafak euren abefietara bialtzen alegiñak egiteko, Inglaterra'z batera lanari lotzeko gertu ote dagon jakin-asmoz.

Gauza jakiñekorik ez dago oraindik, baiña España'n bizikera-arazoak lenera biurtzeko lateñ artean alegiñak egiteko ingalandaf Gobernua aldeko dana, gauza jakiña da.

Ziur asko ingalandaf eskeintzak zeintzuk eratakoak diran ikusiaz emango du alemaniaf Gobernuak onako ala arako erantzuna.

Ondo dakiten alemaniaf batzafetan diotenez, ez dute uste Reich Gobernuak, esate baterako, gaur espaniaf asaldarien lde diarduten "borondatezkoak" abefiratzerik ez du naiko.

Gure gudeari amaya billatu ta emon naiean

Bare - aldi edo armisticio'rik egingo ete da gudan diarduen erbestetar guztiak kanpora jaurti arteraño? - Asmo orixe agertu dautse Inglaterra'ko gobernuak Frantzia, Belgika, Alemania eta Italia'ko gobernuei. - Frantzia eta Belgika'koak gertu. - Italia ukatu? - Van Zeeland izentatzen da bitarteko. - Beste izpariak.

ALEMANIA'KO URITASUNA

Berlin.—"Wirtschaft und Statistik" aldizkingiak Alemania'ko uztearen uritasuna agertzen dau. Azkenengo izparak diotenez, euriteak kalte ugari egin ditue, bereziki Sortaldeko Prusia'n, Pomerania, Brandenburgo, Westfalia, Baviera eta Alemania'ren Sarkalde eta Erdialdean. Uzta erdiz-erdizkoa edo txaria izango da.

SENITARTEKO IZPARAK

Ginebra. — Ginebra'ko Gurutz Gorri'ko Komiteak, España'ko alderdi bietako senidetara izparak eruatea lortu dau. Gudan diarduen alderdi bitzuen erabagiz, Komiteak lan bariak asi zituzan. Lanok Madrid, Valencia, Barcelona, Bilbao, Santander, Salamanca eta Burgos'en dabezan ordezkarici emon eutsezan.

Orain bialtzen diran sarrietan amabost itz bialdu leikez eta Ginebra'ko Gurutz Gorri'ra bialtzen dira emendik koreoz bialteko. Mayatzaren 18'arte orela bialdu ziran agiriak 328.254 ziran. Euretatik 224.710 itaunak eta 103.544 erantzunak.

GOGOZKO GUDARIAK KANPORA ATARATEKO

Bruselas.—Jakin danetik Frantzia gertu dago España'n guda-lanak baretzerako, erbestetar gogozko gudariak atara arte. Inglaterra'ren asmo onek Belgika'ren oniritzia artu dau. Uste danetik Van Zeeland aukeratua izango da bear diran lanak egiten asteko, sozialisten eta katolikoen Gobernu baten buru dalako. Frantzia'ren eritzia jakin ondoren, Londres'ek Roma'ra bialdu dau bere eritzi eske. Bialkun bardiña egin dau Berlin'era.

ITALIA'REN JOKABIDEA

Roma.—Hayas izpar etxeak diñonetik, Italia'ko Gobernua ukatu egiten da bare aldi bateri bidea lagatera, gogozko gudariak España'tik atara bitartean. Inglaterra'k Roma'n daben ordezkaria erbestean dago eta Italia'ko erbesteko arazuak erabilten ditunа Budapest'en dago. Politikoen artean uste dabe egai au Valencia eta Burgos'ko Gobernuei yaokena dala bakar bakarik.

ITALIARAK KANPORA?

Paris.—March'en adizkide batzuk, Gibraltar'en dagozan Franco'ren jarra tzaleak esan dabe, on zkero Mussolini'k Franco'ri adierazoko eutsola España'tik gudariak atarateko bere guraria. Erabagi au españar lurretan il diran gudarien senitartekuak eta adizkideak Mussolini'ri egin dautsezan eskariei men egiñaz izango litzake.

Izan be, amar ilabete ondoren oraindik ez da zer garbitu ta il diranen artean italiar ugari aurkitzen dira.

Españar batzuk Roma'rako urten dira.

INGELES GOBERNUAREN ESKABIDEA

Londres.—Ingeles izparingiak diñoenetik, Inglaterra'ko Gobernuak Ez sartzeko Komitean sartuak diran erirak andienei eskatu dautse, bare aldia egin bear dala España'tik erbesteko gudari guztiak atara arte. Orixe diño "Daily Telegraph" izparingiak, bana asmo onek ondoren onik izateko itxura gitxi dabela agertu dau.

"Morning Post"ek diño, armistizio dalakoak azkenengo erbestetarak urten arte iraungo leukela. baña izparingi oren idazleak uste dau, asmo orek ondoren on gitxi emongo leukela aldi onetan.

BRIAND'EN AINTZAZ

Paris—Frantzia'ko Gobernuak Aldundira aurkestu dau Briand'en aintzazko orotarra egiteko bear diran eun mila frankoren baimena.

MARCH'EN IBILERAK

Londres. — Gibraltar'dik adierazi dabe March'dar Jon aberats andia portu aretara eldu dala andik Italia'ra juateko asmotan, bere Gobernuarentzat lan batzuk egiten.

JONES PATATAS'EN KEMENA

Londres.—Jones Patatas izengoitiagaz ezagutzen dan "Marie Llewellyn" ontziko burua Liverpool'en dago ontzia gariz beteten Bilbao'ra edo Alicante'ra eruateko. Orain erabiliko daben ontziak "Kelwyn" izena eruango dau.

DELBOS'EN JARDUNAK

Bruselas. — Politiko-jardunak egitera etorrita dagon Delbos, Frantzia'ko ministrua efegea ikusten izan da. Laroche, Frantzia'ko ordezkariak bazkari bat gertu ta opaldu dautso gero. Bazkari onetara belgikar Gobernuko ministruak juan dira Delbos'ek atzo goizean Bruselas'en dagozan frantzetar ikastolak ikusi zituzan.

ZERTAZ JARDUTEN DABE?

Bruselas.—Eri onetan Delbos eta belgikar Gobernukoak egiten diarduen jardunak zer esan ugari sortu dabe Frantzia'ko izparingietan. Izparingiak diñoenez, eguneko gairik berezi ta garan zitsuenak ikasi ta aztertuak izan dira jardunaldi orietan, Belgika'ren azkatasuna bereziki. Ondorenak baña ez dirala, uste da, nai añakoak. Belgika'ko Gobernuak ez dabelako ontzat artu nai Lateri-Batza'ko amasei garen artikuluatzaz Frantzia'k daben eritxia. Artikulu orek erbestetar gudaroztiei bide askea lagaten dautse Belgika'tik zear, guda baten.

BILBAO EZTA ADDIS-ABEBA



Italiarak, patxadaz ziarkatu ebezan Abisinia'ko jurraldiak arizku andirik barik, garbelu ganetan. Euzkadi'n ostera, guda-gai auferatubenetarikuaz be ezin dabe loftu euren gurarirk. Emen bapo zulatzen dautsez italiarai euren nafa-zarak.

ERITXIKA

Frantzia eta Rusia

Mosku.—Atzerri-arazoetako frantzetar Zangoak, frantze-sovietdar batasunari bere oniritzia lotuaz, bialdu duan azalnena, Paris'en Litvinoff Atzerri-arazoetako efusiar Zainak Blum lendakari ta Delbos' ekin jardun-aldi izan ondoren, efusiar izparingiak lekurik agirienetan argitaratu dute azalpen ori eta irarkoletako izparkariak eurak ere goraka jaso dute. Rusia'ko izparkari jakitun batzuk diotenez, azalpen ori lenagoko arauen befitze da, aspaldion Litvinoff'ek, lortzearen ainbat a'egin egindako arauok eurok edo Frantze eta Rusia'ren arteko batasuna lotzen duten arau berberon befitze, bi laterfiok haduten Alemania'ri susmo txar izateko bes-

te oiñarri-ta, Lateri-Batza barruan eta agertzen ez dau pakean zaintza-lana.i lotzeko politika au da: arauok oniritziaz. ezin izan emen pake ta au gudate ala au pake ta emen gudate.

Rusia'ko izparingiak pozaren jaso ditzute prantzetar izparingietako zeinbait idatzi-zati. Idazlanok Delbos'en iritzi aldekoak dira; onek, Litvinoff'ekin jardun-a'di izan baiño len, burezkunde-jai egunetan ingalandar zenbakari batzuekin jardun zuan.

Guzti orek agertzen duanez, Inglatera Frantze'ren asmoari dagokio eta ez du laketuko Rusia Europa'n egin bear dan lana burutu bear duten laterien artetik alderatzea.

Vigilis'ek, Kremlin'en adierazle jator eta aipagarienetakoak, Karl Radek'ek ez bear izan zuanetik batez ere, auxe esan du "Izvesti" egunkarian:

"Frantzetar agiri orren mamiña ugaritu egin du Londres'eko batzarak egin eta la'ster agertzeak; batzarotan laterietako ordezkari diplomatikoak izketaldi luze ta garantzitsuak izan zituzten, batez ere Delbos eta ingalandar diplomatikoen buru -nagusiakin, beti antzo, atzerri-arazoetako ingalandar ministru Anthony Eden buru zala."

MUNDAKA

Zerbaitetan lan egin nai daben mundakar emakumiei adierazoten dautsegu Uri Buru Batzar onen idazkaritzetara etorri daitezala, Sabin Etxia'n, ainbat ariñen.

U. B. B.

BURNI BIDE BARIA

Valencia - Madrid

Paris.—Valencia'tik artu diran izparak diñoenez españar gobernuak Valencia'tik Madrid'erako tren bide bari bat egingo dau.

Tren bide bari au befogetabost egunen buruan egingo litzake. Bera egiten amalau mila langilek lan egingo dabe.

Langileoi bakotxari zortzi laurleko ordainduko yakez eguneko, bazkaria ta jantziak gañetik emonaz.

Idazti bariak

Zuzentza eta Gogo Lantzeak argitalduta, alemaniaren jokabidea agertzen daben idaztiño bat artu ta irakurri dogu.

Euzkadi'ko gudea asi zanetik, alemaniarak gure erietan egin dituezan basatikeriak eta kalteak argiro agertzen dira idaztiño orretan.

Alemaniarei eurei arturiko agiri ugari agertzen ditu, egazkinlarien argazkiak eta zertzeladak emonaz.

Liburu onek indarik izango dau gure aldez, paxisten bideak eta lagunak ludizaren aurez-aurre erakusten diralako, ukatzen alegiñik bizienak ipinten dituen aldi onetan.

MUETA GUSTIETAKO KRISTALAK
GORBEA Y C.ª
41'gn. Alameda de San Mamés txaidian
11447 Ufutizkiña

Ipar Amerika'ra 500 ume euzkotar

New York.—Euzko umien zaintzarako Ipar-amerikar batzordeak "Siania" pantzetar ontzia artuko dausla adirazi dau gaur, gudeak bifinduta utzi dituen etxietatik 500 ume euzkotar aterateko, eta Laterri-Batuetan babeslekua ta atenpea eskeintzeko.

Orlaxe adirazi dau gaur, Dr. Franck Volun, batzordearen idazkari nagusiak.

"Europar gudatea amaitu bezin laster, armeniarak pilaka garbitu zituen afezkero, munduak egundo ere ez ei-dau ikusi efi eta gizataldeak bifinduten oraingoan euzko lurraldetan egin daben añean."

"Bilbao'ko egoera, geitu dau ufengo Volun jaun orek, orain baño lariagoz ere izango da, gizon zintzo eta eskuzabalak alkar artuaz, lan eta alegiñak batean egin eta burutu ez baldin ba'dagiez.

Bostetun ume euzkotarok Ipar-Amerika'ra ekariko ditugu alditxo baterako agertzale edo ikerlari antzera.

Umeok euren abefitik noiz urtengo daben ez dogu oindiño erabaki.

Dirua gora

Londres.—Gaurko diru-batzarera jendea ezin batu da. Bafio-gai batzuen saneurik ez du beerako txikienik ere egin. España'n guduketan d'arduten italiar gudariak Italia'ratzeko diran zurumurruak bide ta laister ikatz-arazoa erabakiko dan itxaropena dagolako ei-da ori. Bi zertzeladok diru-erosleai gorako aundia eragin diete bafuan.

Autuka - mautuka

Valencia ta Burgos'ko gobernuen diru auziak Londres,en

Dirudianez, jokabide zeatza erabagi dau oraingoan Londres'ek, Banco de España'ren ureaz eta ure ori erabilteko Valencia'ko gobernuak dauan eskubideaz.

Londres.—Españar Gobernuaren diru jokaerea zer nolakoa dan ardura andiz ikasi eta ikusi daroe emen, eta Londres' egaz dituen saleroskeeta ekonomi arloak nola dabiltzan. An gertatzen zanaz batean, Franco'ren Gobernuaren ordainketa arloak zalantzan ta ezbaian jarri zituela emen jakiteak, asko portu dau Valencia'ko Gobernua.

Dirudianez, jokabide zeatza erabaki dau oraingoan Londres'ek, Banco de España'ren ureaz eta ori erabilteko Valencia'ko Gobernuak dauon eskubideaz.

Burgos'ko Gobernuaren iritziak aspaldion bein ta bariro agertu izan dira erbesteko izoaringietan, Banco de España'ko urea, aren garazkidun edo azionistei Valencia'k or egin dautsala adiraziaz.

Bañan orain oenez, eta "neutral" dirakoen artean esan ere, Banco de España'ren urea erabilteko Valencia'ko Gobernuak badauala eskubiderik, eta Inglaterra'n batez ere, españar Gobernu jatortzat Valencia'ko Gobernuak bakarik etsia baidau Gobernu ingelesak, Inglaterra'n bestetariko asmo ta iritzirik ezin leiela izan ere, agertu daroe.

Urea, bariz, ez da iñondik ere azionistena, ta Banco de España'k dituan ureak gordegarritzat ditu, depositotzat, baña Gobernuaren beafizanetarako. Orra ganera, jakiña, Gobernuak ba-dau eskubiderik ure ori bear dauan giñoan erabilteko, azionistei baimena eskatzeko premiña barik.

Londres'ko diruetxeak atsegiñez ikusi dabe "Madron" eritxon egiunek artzaleak euren kontuak okañi dituela-ta. Efi bien arteko ordainketak garbituteko diru bidez egiteko eziñeko zanez, ta España Diruetxea'ren Londres'ko artuemonak esituta egozala-ta, ordainketak luzapidea ta eragozpen ugari izango ebela uste eben emen lenago

España diruetxeko goraberak, Franco'ren Gobernuak ezereztu ta lotu nai zituena emen. esan daroe aituak.

Origaitik, Valencia'ko Gobernuak joan etorri naikoa egin beara izan dau, ta luzepide batzun ondoren, "Madron" ordainbearak zurituta gelditu dira. Ingeles ta españar diru-garbiketa landolea ipifii baño len emondako arturen edo kredituak dira ordainketa orekaz kitutu diranak, ta ortarako, Madrid'eko kontrol landoleak euren epietan libra esterlinak bialduko zituela abinduta eukan.

Aldia aldi, Banco de España'ren Londres'ko landoleak Londres'ko diruetxe baten utzi zituen diruak, baño diruon gañera egindako txekerik ezdau orañarte ordaindu nai izan diruetxe orek. Franco generalaren ordezkarien agindu eta esanak ontzat artuaz.

Azkenez, zorotz ordaindutea erabaki eban Valencia'ko Gobernuak, geldirik egozan balantzeen garbitasuna geroagorako utziaz.

Londres'ko ekonomi-jakintsuak, Valencia'ko eta Burgos'ko Gobernuen jokaerak alkarren aurez aur agertu ditue. "Germandar" eraz jokatu dauala Franco generalak diñoe, eta ori ez dabe ontzat artzen. España'n lancan ari diran diruetxe ingelesai naitaez euren emokunaen aldatze neurria libra esterlinako 45 laurleko izan bearko zala ezarri eutsen Franco'k.

Londres'en egiten dau aldakuntza saneurria 60 peseta inguru da librako, baña laurleko erosketa batzuk neurri jasoagoan ere egin dirana ba-dakigu, librako 130 laurlekotan ere bai.

LEN BURRUKEA, ORAIN GUDEA

Gelenez gizakikeri-zale (individualismo) agertu yakuz gizonak XIX eunkian. Gizakikeriz gogaituta ta igoindut taldekeri (individualismo de clase) ta laterikeri (estatismo) nazkagarietara jo dabe XX eunkian.

Bataren igesi, beste pendizean jausi.

Korpadi ta batza bereziak izan ebezan gizonak aspaldi. Pantze'ko matxiñada aundia ezkero gizaki-azkatasun zaletasuna geitu ta indartu egin izan da. Azkenez—esan eutsen orduan gizonei ta gizonok azke ziralakotan, beingoan apurtu ebezan batza-lokariak.

Azke ziralakotan ebiltzanok lotuta egozana ikusten asi ziran. Gizakiok azke egiteoi, jaunei, ugazabei, dirudunei ta agintariei on izan yakoen. Euron naikeri ta zekenkeri erpepean beingoan artu eben gizaki (individuo) azkeoi. Berekikoekin, alkartuta egon izan ba-zan, erperik ezin ezarri izango eutsan ugazaba edo eskuartetsuak, baña bakarik ebiltzanoi gura ebenez ezarten eutsezan euren erpe zofotzak.

"Indartsuaren eta makalaren dirutsuaren eta txiruaren artean, azkatasuna lokarri da ta legea azkatasun", Lacordaire'k esaten ebanez.

Erpepean bizi izatea latz ta garratz zana ikusirik eta erpepe orretatik bakarik ezin urten izango ebena sarturik, batza lokarriak lenago gorioto izan ebezanok. Langileok, alkartzen asi ziran. Langile-batzok edo alkarguok burukazaletasun edenez ezkotuta sortu ziran. Taldekeri-burukea asi yakun.

Burukan jardun bearra, gizonen zorrixar.

Ainbat lef egin eta ainbat odol izuri daben langileok, euron gurariak bete dabez toki batzuetan. Eurok eskuratu dabe aginpidea. Euron Laterri edo Estadua sortu dabe.

Gizon, notin diranez yagokuen onurarik lortu dabe? Laterri orretan, langile-laterietan notiñari (persona) edo gizonaren nortasunari begiramen gitxi yako. Jardun eta ekite ororen elburu Laterria edo Estadua da. Notiña, gizon-izatea bastartuta geratu da.

Orein aurez-aurre jagi diranak, be, taldekeri-burukeoi ontzat artzen ez dabenaren enderi-burluka zale dira. Laterikeri-zale doguz.

Batetik eta bestetik XX eunkia laterikeri-eunki biurtu yaku. Langileok euron onaren bila, laterikerira jo dabe; laterikeri-zalez langile-lateriak sortu nai dabez. Taldekeri ta langile burukeon bidez lortu dabenaren eredu Rusia dogu.

Enderi-zalekeriz abertzalekeriz ta baltsakeriaren igesi laterikerira (estatismo) jo dabe matxiñada zale ez dirala diñoenak be. Begira Italia'ra edo Alemania'ra.

XIX eunkian gizakiarentzat doguz begiramen guztiak eta gizaki azkatasuna da ames bakar. Gizaki-azkatasun orek gizonari ez eutson onurarik ekarri. Gizaki-azkatasuna bide, gizakirik gelenak erpepean artu ebezan. Liberalkeriak odol-izurite aundiak sortu ebazan. Goikoen eta bekoen, ugazaben eta langileen arteko burukea zitala sortu eban; taldekeri-burukea.

XX eunkia laterikeri-eunki dogu. Batzuk eta bestetzuk, alkarren arerio diranak laterikeri-za-le doguz; laterria sendotzea ta indartzea orein ames; ora aurez-aurre ames orixe dagien marxistakeri-zale ta paxistakeri-zaleak.

Gizon-izatea ukatuaz, notiñaren izatea onartzen ez daben Laterriak, alabearez gizonaren ondamendi doguz, XIX eunkiko gizaki-azkatasuna gizon gelenen lokai izan zanez.

Oraingo laterikeritik laterien arteko burukea, gudea besterik ezin itxaron daike. Laterriok euron arokeria, euron agindu-naia, euron iñor menderatu gura dabe elburu bakar.

Eurok azken-elburu egiten diranez, gizadi guztia ondatzeko, be, eskubidea dabela dirudi. Laterikerioi geure ondamendi, gizonon galbide izango dogu naiz zurien naiz gorrien izan.

Laterion arteko burukea orein ostean, notiñak, gizonak bere aldia izango ete dau?...

ARETXINAGA

EGUNA JEL

Egija.
Euzkadi Abeŕi txikija da, geuria baña.
Eta bere luŕaldiaren neurkin bat eta euzkotar bat diran bitartian iraungo da.

Lgo. urtia | 121'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. orrilla 23'gna. igandea | 15 eunen

Españar gudako izpaŕak-eta

Eŕepublikaŕak garaitzak lortuten jaŕaitzen dabe Madrid ingurutan

Paxistak, besterik lortu eziñean, Madrid uri baŕua gogorki ta zital suagatzen ekin eutsen atzo.-Asturias'ko guda oñetan suagaketak besterik ez-Tajo'ren Egoaldean eŕepublikaŕak bultza ta bultza.-Almeria ingurutan joaldi gogoŕak egin zituezan, itxasontziak lagunduta.

Ila onen saspigaŕena zan. Solube ganian, gudaterik gogoŕenak ixan ziran. Jakiŕunen aburuz, ludija ludi dan artian ezagutu ixan diranik buŕukarik ikaragaŕijenak.

Itali ta alemandaŕak, aspaldiko urte mordozkearen buruz orniduriko guda-gai gustijak antxe erabili ebezan, gure gudari aintzatsuben kaltez. ¡A eguna, 1937'gaŕeneko oŕilaren saspigaŕena! Euzkadi'k lasteŕ loŕtuko dauan azkatasun-edestijan izki-bereziz idatziko da.

Egun artan, alemandaŕ egazkiñak, ebezanak eta ezebezanak emon ebezan. Irurogetazak egaz-egin eben aldebatera. Gustijak etziran biuŕtu oŕaiti euren zelayetara. Gure gudarijen izkiŕupian bi jausi ziran.

Egazkiñak bakaŕik etziran ixan baña gure mutilen ganera itxuli ebezanak, ez. Ango moro, italiaŕ, paxiotaŕ eta eŕekete sailok amaigabeak irudiŕen. ¡Ango kaño-otsa! ¡Ango burnizko burdija! ¡ango inpernua! Solube-mendi gustija sutau eben. Gori-gori jaŕi.

Eta ala ta be, gure gudarijak euren lubanetatik ezeben egin zirkiñik. Antxe eutsin eutsen zapaŕada gustijari. Zelan etoŕi, alan garbitzen ebezan areyo gustijak. Burnizko areyuak be bai, ba antxe amildu eutsezan "tanque" deritxoenetaiko (guk mafaskiŕuak esaten dautsegu) burnizko sei burdi. Antxe lotu ziran ilotzik, bi mila paxista ankeŕ. ¡A zan triskantza!

Ainbestekorik ez ei-zan ezagutu, Europa'ko gudaketa ospetsu artan.

Alan esan euskun beintzat guda artako zertzeladarik gogoŕenak ikusi ixan euzan ingalandaŕ argazkilari-zaŕ batek.

Ingalandaŕ argazkilari-zaŕ au, ila onen saspigaŕenan, Solube'n ixan zan, ango zaŕapaŕa gustijen zertzeladak ausnartzen. Iluna ganetu zan arte, ezeban arek zirkiñik egin, buruzkea zifalen ebiŕan lekubetatik. Dana ikusi, ta, ikusten eban gustija bere tramankulu baŕuban sartu gura ebela irudijan.

Iluna ganeratu zan baña, ta ingalandaŕa Bilbao'ratu be. Gabeko amaŕak aldian Lendakaritza auŕkitzen dan etxeko areto batian ikusi geban.

Pipia espanian eta eskumako bizkaŕetik eskeŕeko besapera ziarkatzen zan ugel batetik txintxiliz eban bere tramankulu andija ondiñokaŕen.

—Da? ¿ezer ikusi da edo?—itandu geuntson ingalandaŕ oŕi.

—¡Oh, mugcho de aggiba, mugcho! ¡Oh... tegmendo, incogmensugable! Eta egazkiñak jaurti ebezan okaranak azaldu azi nairik, kiñuka ta abaŕ ¡oh... mugcho, poun, poun, poun, mugcho, oh... incogmensurable!

Nekez ta abaŕ, gaztelera-gaiztoz gure gudarijen kemen eta adoriak aŕiturik eukala esan euskun. Ludijan etzala euzko-gudaroztia bezin eŕimerik.

Eta bere gardi ori ludi osuaren aŕtian egitaztzeko, antxe bere tramankulu baŕuban eroazala ezaugaŕijak esan euskun.

* * *

Iaren saspigaŕenetik gaurdaño ezta alako egun pila andirik jaso. Eta gure ingalandaŕak bere itza bete dauan izpaŕa, gaur jaso dogu.

Lateŕi-Alkartubetan New-York'en danik igelezketa edo sinerik edeŕenian, Solube,ko gudaketa ikaragaŕija zapiratu dabe. Argi ta garbi ikusten eidira antxe gure gudarijak (geure gudarijak gero e?) areyuari bulaŕtsu jarkiten. Ikuspegi begiragaŕijanetaikolzat eisi ei-dabe gudaketa ori New-York'en, eta egundo ezagutu eztan oztelza andija eltzen ei-da, Euzkadi'ko bastaŕ zoragaŕi aretan ixan zan gudaketearen mintz edo pelikulea ikustera.

Gure ingalandaŕ ospetsu oŕek, zer-ikusijan jaso ei-dau, gure mutilak bilinboloka sei tankiak jaurti eutzezan unia. Enparau zertzeladak era bardiñean azalduta ei-dagoz. Gauza ikusgaŕija ei-da. ¡Yankee oŕeik aŕituteko! Ortik atara kontua.

Beraz argazkijak barik "pelikulea" egin euskun gure ingalandaŕ adizkidiak.

Eta geuk be, lastertxu ikusi al-ixango dogu, bidian dotorku-ta.

Esango dautzubegu noz.

Oŕa, len ospetsu ba'giñan euzkotarok, ospetsubago zelan egin gauzan gure ingalandaŕ adizkide zaŕak.

Eskaŕtu biaŕ dautsogu.

* * *

¡Ixi...! ¡Adi mutilak! ¿Eztozube entzun zaŕapaŕarik?

Atzokua baño andijagua ixandok ba gaurkua.

Franco'k Mola'ri ifatidatzi bat, radiograma bat zuzendu dautso. ¿Zer diñotson? Esango dautzat ba. Baña ez ikaratu gero, e? Auxe diñotso: "Urge tomar Bilbao. Es posible Alemania retire su aviación."

E? ¿Zer diñozu irakurle? Autzak dogu-zala guk ixileko gauzak atrapaten? Ba orixe be atrapau dogu ba. Eta ezkauz ikaratu izpaŕ oŕek. Poztu bai ostera. Oŕek, paxistentzat gauzak okeŕtzen duazala adierazoten dauskulako ta Mola'k Bilbao'n sartzeko biboterik eztaulako.

Jaunak: Gudea irabazita daukogu.

¡Gora Euzkadi azkatuta!

ZER-ESANLARI.

Euzko guda oñetan

(Lenengo oŕtik datoŕ.)

laz buzti beaŕ izan eban aufetik, gure mutilak bere joaldi guztiak zindoki ta kementsu ebagiten eutsezalako.

Atzoko eguna gogoangaŕia izango da euzko edestian, aufera beste joaldi batzuk betiko aipagaŕi egin ziran antzera.

BESTE GUDA-OÑETAN

Beste guda-añetatik ez dogu alpagaŕirik.

Orduña aldean betiko kañoi otsak. Baña pusildunak geldi.

Eta geiagorik ez alde onetan.

FALANGETAŔ BAT IGARO

Falangetaŕ gudari bat etoŕi zan gure aldera Durango'ko guda-oñetatik.

Arerioari iges egiten dautsen oneik, arerioaren baŕi emoten dauskue, agintarientzat bereziki.

Txarto egon beaŕ dau arerioak ola ko estutasunetan mutilak iges egiten dautsenetan.

Garabitas ta Aguila mendietako suagalari batzuk il eta zauritu ebezan erkaldaŕak. Toleko aldean asaldariok makal-sa maŕ erantzuten dautse erkaldaŕei. Uriko guda-tokiak suag u dabez.

Egazkiñak ikusketak egin dabez ta Tajo Egoaldeko paxisten guda-tokiak suagatu.

TAJO EGOALDEAN ERKALDAŔAK BULTZA TA BULTZA

Madrid. — Tajo Egoaldean erkaldaŕak bultza ta bultza daŕaie.

Goiz-goizetik asi ziran erkaldaŕok jo ta jo; denengo suagalariak bizi-bizi suagatu egin ebezan asaldarion guda-tokiak eta guda-luban eta guda-tokiok asko apurtu eutsezan.

Toledo'n esibaŕututa dagozan gudarioŕ, eta paxistok egunean baño egunean laŕiago dagoz.

Egaldiñak, be, ikusketak eta suagaketak egiten goizago asi ziran eta segundo-kuetan zapustu ebezan paxistok.

PAXISTAK ZITALKERIZ

Madrid.—Guda-oiñetan ezer egin ezin al dabenean, beste numbaiten agertzeko edo bengetako gogoak jo dauz.

KATALANDAŔAK BUŔUKAN LASTER ASIKO DIRA

Barcelona.—Sarkaldeko Gudarosteko Guda-Arduradun Nagusiak azalpen oneitxek egin dauz: Gudea ondo ala txarto yuakun jakiteko guda-oin bateko gogaberei bakaŕik ez yakoe begiratu beaŕ, guda-oin guztietakoei baiño.

Aragon'go guda-oiñetan eraikunde baŕua egin daitenean, erakutsiko dauz kata'andaŕ Gudarosteak bere aldiña, bere kemena ta bere buŕukarako gogo ibizia.

Pozas gudalburu argiaren zuzendaripean gudaroste oŕek guztiak aŕituko dauz.

ASTURIAS'KO GUDA OIÑETAN SUAGAKETAK BESTERIK EZ

Gijon. — Guda-oin onetan suagalariak egin dabez ekiñaldi bizi-biziak.

Lugones'en asaldariek suagalariak erkaldaŕen guda-luban eta guda-tokiak suagatzen asi ziran eta erkaldaŕ suagalariak euren aurka asi ziranean ixildu ziran eta uri baŕuko guda tokiak suagatu ebezan. Pantzezka Deuna'ren zelaian asaldariek gudariak guda saioak egiten ziñarduena jakin eben erkaldaŕ suagalariak ta zelaioi suagatzen asi ziranean beingoan banandu ebezan gudari taldeak eta batzuk il eta zauritu be egin eutsezan.

SUAGAKETA BIZIAK MADRID ALDEAN

Madrid.—Goizean goiz asi dira asaldariok Madrid suagatzen. Erkaldaŕ suagalariak euren aurka asi ziranean, suagalarion artean buŕuka aundia sortu zan.

Madrid Ipaŕaldeko kañoiak jardun eben bizkaŕen. Erkaldaŕak asaldarion kañoiak suagatzen ebezan-artean, paxistak uria suagatzen jaŕaitu eben. Egundoko suagatzea egin eben.

Etxeak sutu dabez ta suoi itzaltzen naiko lan izan dabe.

Erkaldaŕ suagalariak batez, be, Ciudad Universitaria ta Manzanares ibai-ertza suagatu ebezan.

LABURPENA

Gudaoin guztietako izpaŕak

Madrid.—Uri onen inguruetan iru aldetan izan dira gaur gudaketak, Madrid aldean, Jarama'n eta Tajo egoaldean.

Frantzetaŕen zubi aldean erasoka asi ziran paxistak, Hospital Clinico'n dituen lagun taldeari lagundu naiaz, onek estu bai-dagoz. Baña asmo oŕek uts emon eutsen.

Cuesta de las Perdices inguruan erizaleak egin eben joaldia Cuba'ko ordezkaritza deritzan etxea artuaz; alboko gañak ere artu ditue, rerioai kalteak kalte egiñaz. Oŕen erantzunez, amuŕuz gañezka, paxistak uriaŕi suagaka ekin dautse, eta Puente del Sol, Palacio Nacional eta inguruetan suaga batzuk jausiaz.

Arerioen suagakaŕien kaltez, eŕizalien kañoiak eta egazkiñak jardun eber

Jarama aldean ere etsaiak asi eben oldaŕaldia, berebil taldeak laguntzale zituela. Guda era baŕia asi eben une ortan paxistak; joaldi gogoŕak egin, baña gizatalde andiak ez ordea, buŕukaldi luzeak ez egiteko. Bañan eŕizaleak eutsi eta lengo lekuetaraintz eragin eutsezan.

Tajo egoaldean erkaldaŕak jardun dabe ibaŕean baztefak arakatuten, uri inguruan, eta arerioak eraso makal bat edo beste rik baño ez dabe egin.

Egazkiñak edenki jardun dabe Guadalajara'ko gudaoñetan, eizekoak bebera jatsaz, eta paxisten esiei izkilazkaŕez erasoaz.

Euzkadi'ko guda-oñetan gogor bai gogor diardue oindiño ere, eta etsaien eraso gusztiak esi sendoa eta igaro-eziña aurkitu daroe euzko gudariekan.

Erkaldaŕak joaldi ariña egin eben Asturias'en, eta La Robla'tik Balmaseda'rako burni bidea ebakiaz.

Buenavista'ko esiei eraso eutsan arerioak Villaharta aldean, emen dagozan kañoiak eta ogetamabi egazkin lagun zituela, baña ezetariko ondoren barik.

Almeria aldean ere, zipapaŕa ugari danabile. Eŕizalien egazkiñak eta gudontziak Malaga alderantz jardun dabe, eta gudariak joaldika ekin dautse esiak obatuaz. Malaga eŕialdean ba-dabil oindiño nasterik alde bietakoen artean; eta Malaga urian bertan ere, naspiltzaliak ba-dira oindiño, paxistei baketan usten ez dautsenok.

Guda-oiñetan gura dabenik loŕtu ez dabenetan, Madrid suagatu izan dabe ta atzo, be, onixe jazo zan.

Egunez Jarama aldean aufera egin nai izan eben baiña erkaldaŕak ez eutsen laketu ta paxistok atze-atzeraka asi ziranean, erkaldaŕak ondoren jaŕaika asi ziran eta guda-tokiak aufeŕatu egin ebezan.

Atze-atzeraka asi ziranean gorpuak eta izkiluak jasoteko astirik, be, ez eben izan eta erkaldaŕak jaso ebezan.

Garabitas mendian eta La Coruña bitxabalean daukezan kañoiekin Madrid suagatzen asi ziran eta Madrid'ko uri baŕuan edozein bat etxe apurtu ebezan eta edozein bat notin il eta zauritu, be.

EGOALDEAN URDURI TA GOGOTSU

Almeria. — Malaga'ko sailetan arunt-onuntz aundia ikusten ei-da.

Erkaldaŕen egazkiñak itxasertzean eta Malaga-aldean guda-toki ta guda-lubanak suagatu ei-dabez ta apurtze aundiak egin.

Gudontziak, be, suagaketa oŕeitan egazkiñei lagundu dautse.

Kañoiekin guda-lubanak astin-astin egin ondoren, erkaldaŕ gudaro-taldeak aŕerakada batzuk egin dabez ta buŕtzada bitziak.

MINISTRUEN BATZAŔA

Valencia.—Guda-arazoak astertzeko asmoz aŕatsaldeko seiretan batzartu dira Gobernukoak.

BAKEA EGIN DA

Barcelona. — Ertzainen buruzagi dan Torres koronel-ordeak izparlariei auxe esan dautse:

"Ondo duaz gauzok: danak nai izan dabe ta bakea egin da".

GUDA-AUTUAK

Euzkotaŕen jokabidea eta paxisten asmuak

Ausartuko ete dira paxistak ainbat aldiz iragaŕi dituezan neuŕiak artzen?

NEW YORK'KO WIRELESS PRESS TA EUZKADI'KO BUŔUKEA

Paris.—Asaldariok Bilbao eurondu dagien euzko guda-oiñetan asi eben ekiñaldiko azken joaldiak laster esiko dabez ta Bilbao eurondu edo makurtuarazo al ezin ba-dabe joaldion buruz, orain arte guda onetan egin ez dana egingo dabe; laspel edo gas itogaiekin ezer egin al da ben oartu nai izango dabe.

Abaru onek bere oiñaŕiak daukaz. Euzkotaŕon eskuetan jausi diran asaldarien arteko gudari guztiak laspel edo gasen aurkako arpegi-estalkiñez orniduta egon dira. Italiaŕak España'n kimi-sail bereziak ei-daukez, Euzkadi'n, be, bai ausago; alemandaŕak, be, ei-daukez.

Erkaldaŕak laspelekin edo gasekin ekin daitsela aikikulu ipiñi ta laspelakin eurak ekingo dautse gudan, oŕen beaŕizanik izaten ba-da.

Jofailaren amargaŕenez, gudan diñarduen alderdi bioi Inglatefa'ko Gobernuak laspen edentsuok, erabiliko ez ebezan baieztuko eutsen galtetu eutsen. Erkaldaŕ Gobernuak ez ebazala erabiliko, baiña asaldariok laspelekin edo gasekin asten ba-ziran, erkaldaŕok, be, al daikenez erantzungo eutsela azaldu eban. Asaldarion Gobernuak oindiñokaŕen ez daittso erantzun.

Laspel edo gasekin, be, baiña buŕukaŕik ezin beti irabazi daike. Europa'ko Gudatean alemandaŕak Flandes'ko guda-oiñetan kanadataŕ gudarien aurka egiteko erabili ebezan.

Paxistok laspel eta guztí, be, Bilbao birako iru mailako guda-esiok ausi edo apurtu ezin al ba-daikeez ta Bilbao ezin eskuratu al ba-daike, zer egingo dabe edo nora jokó dabe?

Bide bakaŕ bat geratzen yakoe. Eŕitaŕak ikaratu ta egazkin suagaketen bidez uria zuzitzea da bide ori. Asaldariok Bilbao apurtzeka artu nai dabe, gintza ta saleroskeia aundia dauka ta. Artu ezin al ba-dabe baiña, aiturik geienak uste dabenez egazkiñekin guztiz apurtuko dabe. Bilbao eurondu edo gudea galdu beaŕak jo dauz paxistok.

Alemandaŕ eta italiaŕak euren laguntzearen ordain, Bilbao eskatzen dautse paxistoi. Italia'ren eta Alemania'ren guda-izkilu geitzerako beaŕeko yakoez Bilbao'ko burdin-meatz ugari ta aberatsak eta burdinkiak ludi guztian garestitu osteaan beaŕago yakoez.

Bilbao artuaz entzutea baiño zerbait geiago irabazten dabe paxistok. Europa'ko Latefien goraŕera guztia Bilbao'n jokatzen dala diñoe euzkotaŕak eta ori esaterakoan ez dagoz okeŕ.

Bilbao birako iru mailako guda-esiok aurka joaldia Mola'k laster asiko dabela uste da. ¿Guda-esioi apurtu al izango ete dabe?

Euzkotaŕak ezetz diñoe ta guda luban eta guda-toki sendo oŕeitan sartu daitezaneaan areriuoi eutsiko ei-dautse.

Mola'k joaldiotan aufera botateko 20.000 gudari daukazan zaratea dago ta olakoxeren batzuk eukí, be, egingo dauz. Oŕeik beaŕ-izanak jo dagiazanean oŕei laguntzeko 10.000 ei-daukaz. Mola'ren gudariotatik irutik bi italiaŕak ei-dira.

Guda-burdietako ta egazkin zuzendariŕik geienak alemandaŕak ei-dira. Asaldariok galtze laundiak izan dabez, euzkotaŕok il edo bizi jokatu dabe-ta.

Lengo eunki edo gizaldian lau aldiz esibaŕutua izan zan eta esibaŕutu ebezanok bein, be, meneratu ez eben uria menderatu al izateko Mola'k daukazan gudariok naiko izango ete diran aufez ezin baieztu daike.

Euzkotaŕ gudariak eta Bilbao'n dagozan 300.000 eŕitaŕak (oneitatik 180.000 Gipuzkoa ta Bizkai'ko oŕietatik Bilbao'ratuak dira) paxistakeria Euzkadi'n eta Europa'n ezartea eurok eragozten dabela uste dabe uste osoz.

Latefien goraŕera guztia Bizkai'ko mendi orlegi ta ibaŕetan jokatzen dala deritxoe.

David eta Goliat'en arteko buŕukeoi besterik ez da entzuten eta oldozten Bilbao'n eta inguruotan.

Euzkadi'ko uriburutik eta erbestera dan aldiz-aldiko sur-urtepide berezi bakaŕa Bilbao'tik Biaŕiz'era dabilan soi bidari eruan daikezan egazkin-azkaŕa da. Egazkiñoi goiestari edo zerua lañotsu dagoanean juaten da asaldarien egazkiñen bilduŕez.

Egazkin oŕek pantzetaŕ ikuŕiña ta saterosketako dan ezaugaŕiak dabezanaŕen, asaldari edo paxisten egazkiñak edo zer egin daikioe. Pantzetaŕ ordezkari Jean Herbette jaunak berberak au idazten daben izparlariari, pantzetaŕ egazkin oŕetan ez eitela Bilbao'ratu esan eutson, egazkin oŕetan galtzerik edo ilterik izaten ebenen raintzupenik berari ez yagokola ta.

Bilbao'n egazkiñak amaika laŕialdi jasan arazoten dautsez eŕitaŕoi. Aldiz-aldiz ta safi entzuten da adaŕ-otsa ta eŕitaŕak gordelekuetara juan beaŕa izaten dabe ta lau adaŕ-ots ekiñaldi entzun artean antxe egon beaŕ; lau adaŕ-otsekin afiskua al dendu dala adierazoten dabe.

Iru adaŕ-ots laburekin afiskua bertan dabela. Goiz-goizean asita amabi aldiz, be, egunean jo beaŕa izan dabe adaŕok egualdi ona egiten izan dabenetan.

Aste bi egin dodaz Bilbao'n eta aste oŕetan Bilbao'n bertan suagaŕik ez eben bota, baiña bai inguruko eŕitxoetan eta uri-egaletan.